

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2770

194/2013 EBAZPENA, maiatzaren 14koa, Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Donostia Unibertsitate Ospitaleko Informazio-sistemetako zuzendariordearen lanpostua betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Donostia unibertsitate Ospitaleko Informazio-sistemetako zuzendariordearen lanpostua hutsik dagoenez, Zuzendaritza honek deialdi publikoa deitzea erabaki du lanpostu hori betetzeko, izendapen askeko sistema bidez, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean eta Osakidetza Lanpostu Funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan xedatutakoari jarraituz. Hona hemen

OINARRIAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen bitartez, Informazio-sistemetako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia egiten da, eta bertara honako hauek aurkez daitezke: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeei atxikitako langile finkoak (funtzionarioak, estatutarioak nahiz lan-kontratuko langile finkoak), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko nahiz bere erakunde autonomoetako funtzionarioak, eta baldintzak betetzen dituen beste edozein. Hona hemen bete beharreko baldintzak

1.– Titulazio akademikoa.– A1/A2 lanbide-taldean aipatutako unibertsitateko edozein lizentziatura edukitzea.

2.– Hizkuntza-eskakizuna.– 3. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

3.– Esperientzia.– 5 urteko esperientzia edukitzea A1/A2 lanbide-taldeko zereginetan.

Bigarrena.– Interesdunek Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pertsonaleko Zuzendaritzara igorri beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako eran ere aurkez daitezke eskabideak.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek, eskabidearekin batera, honako hauek adierazten dituen curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute::

– Titulu Akademikoak.

– Orain arte betetako lanpostuak.

– Lanbidean eta kudeaketa sanitarioan daukaten esperientzia.

– Ikasketak, ikastaroak, ponentziak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki irizitako beste edozein merezimendu. Bereziki baloratuko dira informazio sistemiei erreferentzia egiten dietenak, izan ere, hori da Zuzendariordetza honen xedea.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztargiriak ere aurkeztu beharko dituzte. Halaber, argitalpenak, txostenak edota egokitutako beste edozein agiri ere aurkez dezakete.

2013ko ekainaren 17a, astelehena

Laugarrena.— Deialdi hau Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2013ko maiatzaren 14a.

Donostia Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
JOSÉ MANUEL LADRÓN DE GUEVARA PORTUGAL.